



2019-2020 ikasturteko eskolaz kanpoko ekintzak!!



Behin-behineko informazioa da.

Irailaren hasieran informazio gehiago helaraziko dizuegu

Hurrengo ikasturterako prestatu ditugun ekintzen zerrenda aurkezten dizuegu ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN BATZORDEAK antolatzen ditu ekintza hauek guztiak; baita jarduera hauek egiteko behar diren espazioen erreserbak ere. Puntualki (SantaAgeda jaialdia, inauteriak...) ekintza hauek bertan behera uzteko ardura ere ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN BATZORDEARENA da.

Ekintzen hasiera **2019ko urriaren 14an** eta bukaera **maiatzaren 29an** **EGUERDIAN Haur eta Lehen Hezkuntzakoek gehienez 2 ekintza egin ditzazkete. Arratsaldean nahi bezainbeste.**

Gutxienez 8 haur talde bakoitzeko, musika tresnak izan ezik. Ez bada apuntatutako taldea ateratzen, aukera emango da beste jarduera bat aukeratzeko.



IZEN EMATEA



Apuntatzeko **esteka** waxap eta e-posta bidez bidaliko da, eta Web gunean ere egongo da.

Epea: Irailaren 9tik 12ra

Behin behineko zerrendak: **irailaren 18an.**

Erreklamazioak: **irailaren 18 eta 19.** 17:00 etatik 19:00 etara Apymako gelan.

Behin betiko zerrendak: **irailaren 24an.**

Ordainketa epea: **irailaren 18tik 26ra.**

Ordainagiria e-postaz bidaliko duzue **extrascolarespatxi@gmail.com** helbidera. Edozein arazo izatekotan idatzi helbide horretara ere.



ORDAINTZEKO MODUA



Ordainketa egiterakoan beharrezkoa da haurren izen-abizenak eta ekintza agertzea.

LABORAL KUTXA (IBAN ES59) 3035 0249 8824 9001 7603

Jarduerak bi moduz ordaindu daitezke:

1- EPE BAKAR BATEAN: irailaren 18tik 26ra

2- BI EPETAN: 65€ irailaren 18tik 26ra eta gainontzekoa azaroaren 6tik 17ra

Jarraian aurkituko duzue ekintza bakoitzaren azalpena eta prezioa.



OHARRAK



Jardueran izena eman eta ordainketa egiteak, eskola-gunean zein kanpoan egiteko baimena ematea eta arauen onartzea dakar.

Jarduera guztiak arautegi bati lotuta daude. Arautegia Web orrian dago izena emateko orriaren ondoan. **Guraso elkarteko urteroko kuota ordainduta izatea ezinbestekoa da jardueretan parte harzeko.**

EGUERDIKOAK

	2	3	1	2	3	4	5	6
	HH	HH	LH	LH	LH	LH	LH	LH
Alemana			X	X	X	X	X	X
Antzerkia				X	X	X	X	X
Bertsolaritza				X	X	X	X	X
Dantzazun	X	X	X	X				
Eragin buruari				X	X	X	X	X
Erlajazio jolasak	X	X						
Euskal dantzak		X	X	X	X	X	X	X
Frantsesa			X	X	X	X	X	X
Gorputza adierazpena	X	X	X					
Haizeberri tailerrak			X	X	X	X	X	X
Informatika							X	X
Ingelesa			X	X	X	X	X	X
Lenguai musikala				X	X	X	X	X
Musika tresnak				X	X	X	X	X
Musikarekin jolasean	X	X						
Ongi etorri musikara			X					
Robotika			X	X	X	X	X	X
Traste—nahaste— borrhaste	X	X	X	X				
Txitu			X	X	X	X	X	X
Xake			X	X	X	X	X	X
Zirko			X	X	X	X	X	X



ARRATSALDEKOAK

	2	3	1	2	3	4	5	6
	HH	HH	LH	LH	LH	LH	LH	LH
Euskal dantzak		X	X	X	X	X	X	X
Musika tresnak				X	X	X	X	X
Ofizio-afizio					X	X	X	X
Xake			X	X	X	X	X	X
Zine tailerra					X	X	X	X

ANTZERKIA **65€ .**

Espresio dramatikoan hastapenak. Helburu nagusia honako hau da: Haurren espresat-zeko gaitasuna bere atal guztietan lantzea, hau da, ahozko espresioa eta gorputz jarrera lantzea. Honetarako ipuinak tresna gisa erabiliko ditugu, euskal ipuinei lehentasuna emanez.

Adina: LH 2,3,4,5,6

HAIZEBERRI TAILERRAK **65€ .**

Ekintza honetan mota askotako aktibitateak proposatuko ditugu haien irudimena eta sormena landuz: globoflexia, paperoflexia, birziklapen materialekin mahai jokuak sortu, labo-rategi esperimentu errazak, magia truko errazak, eskulan dibertigarriak....

Adina: LH 1,2,3,4,5,6

TRASTE-NAHASTE-BORRASTE **65€ .**

Ekintza honen helburu nagusia haurren sormena eta irudimena lantzea izango da. Horretarako sormen teknika ezberdinak landuko ditugu (musikaren laguntzaz, antzerkia eta erlaxazioa, erakuntza jokoak, material birtziklatuei erabilpen ezberdinak bilatu, zentzumenak esperimentatu e.a.).

Adina: HH 2, 3 LH 1, 2

ZIRKOA **65€ .**

Ekintza honen helburua zirkoko hainbat tekniken eta isziplinen berri jasotzea da; malabareak, akrobaziak, dantzak,..... ,beti ere jokoan, sormenaren eta patehatzearen bidez.

Adina: LH 1,2,3,4,5,6

ZINEA **75€ .**

Tailer hau haurrek haien adierazpen gaitasunak ezagutzeko eta garatzeko espazio moduan planteatzen da, gaitasun fisiko, ahozkoak eta musikalak kontutan hartuz.

Jolasaren bidez eta jarduera desberdinen bidez (besteak beste antzezpenak) haurrek zentzumenekin, irudimenarekin eta sormenarekin esperimentatzeko espazio bat aurkituko dute, arreta, abstrakzioa edo taldean lan egitea bezalako gaitasun garrantzitsuak garatuahal izateko.

Adina: LH 3,4,5,6

**BERTSOLARITZA** **65€ .**

Joko eta ariketen bidez, ikasleek bertsoak egiten ikasten dute, euskal kulturaren ahozkoen tradizioa jasoaz eta bertsolaritzaren historia ezagutuaz.

Adina: LH 2, 3, 4, 5, 6

GORPUTZA ADIERAZEPNA **65€ .**

Haurren adierazteko gaitasuna garatzea bereziki gorputz jarreraren sakonduz, jolasen bidez egiten da batez ere. Ipuin ezagunak tresna gisa erabiliko dira.

Adina: HH 2, 3 LH1

EUSKAL DANTZAK **65€ .**

Gure herriko folkloreak ezagutzan garrantzi handia dute euskal dantzak. Helburua, haurrek bere herriaren kultura propioa ezagutzea litzateke, dantza herrikoien ikasketa teoriko-praktikoen bidez. Adinaren arabera dantza desberdinak ikasiko dituzte.

Adina: HH3, LH 1,2,3,4,5,6

DANTZAZUN **65€ .**

Haurren adimena eta gorputzaren koordinazioa estimulatu dantza eta jolas aerobikoen bitartez.

Adina: HH2, 3 LH 1,2

DANTZAK (Dindaia)

INFORMATIKA **170 € .**

Informatikarekin familiarizatu baina batez ere modu dibertigarri batez informatikak eskaintzen dituen aukerak ezagutuko dituzte.

Adina: LH 5, 6

ROBOTIKA **_____ .**

1 LH (225€), OINARRIZKOA 2 LH eta 3 LH (225€) eta AURRERATUA 4 LH, 5 LH eta 6 LH (250 €).

Zientzia eta teknologia ikasteko era dibertigarri eta entretenigarriena. Modeloak eraiki eta programatzen dituzte. Trebetasun motorrak eta itxura-espazialak lantzen dituzte. Ikasle handienek robot bat erakitzen dute eta erronka desberdinak gaindi dituzten programatzen dute.

Adina: LH 1,2, 4, 5, 6

INFORMATIKA (Mecarapid)

MUSIKA TRESNAK **175€ .****Txistu /Kitarra / Kitarra elektrikoa / Akordeoia
Bibolina (soilik arratsalde)**

Ordutegia hezitzailearekin adostuko da eta gela libreak egon beharko dira. Musika tresnaren ezagutza sakonagoa lortzeko, musika lenguaia ikastea gomendagarria da.

Musika tresnak ikasleek ekarri beharko dituzte edo hezitzaileekin adostu.

Adina: LH 2,3,4,5,6. Txistu(LH1etik Aurrera)

LENGOAI MUSIKALA **65€ .**

Aurrekoan bezala, musika espresioa lantzea eta sentsibilitate musikala lantzea dira helburuak, edukinak sakonduz. Musikarekin gozaten ikasi eta erritmoa eta koordinazioa lantzen dira.

Adina: LH 2,3,4,5,6

MUSIKAREKIN JOLASEAN **65€ .**

Ekintza honek musikarekin lehendabiziko hartu emana eskainiko die. Musikaren munduak eskaintzen duena ezagutzen hasten da helburua. Musikarekin lehen kontaktua izanik musika espresioa lantzea eta musika sentiberatasuna lantzea dira helburu nagusiak. Ikasi beharrekoa 3 bloketan banatuta egongo da: Instrumentu desberdinen ezaugarrien ezagutza, erritmoak, eta pentagrama eta noten figurak.

Adina: HH 2,3

ONGI ETORRI MUSIKARA **65€ .**

Musika espresioa lantzea eta sentsibilitate musikala lantzea jarraitzen dute izaten helburu nagusiak baina oraingo honetan edukiak sakonduz joango gara eta instrumentu batzuk eskura izango dituzte lehendabiziko kontaktua izan dezaten.

Adina: LH 1

**ERAGIN BURUARI** **65€ .**

Logika eta arintasun mentala lantzeko ekintza da. Hau guztia lortzeko ezin bestekoa den arreta eta memoria landuko ditugu. Honetarako, ariketa eta baliabide ugari erabiliko ditugu. Bestak beste, abakoa, esperimentuak, memoria jolasa.

Adina: LH 2,3,4,5,6

ERLAJAZIO JOLASAK **65€ .**

Ekintza honek gorputza eta emozioak kontrolatzen eta energia fisikoa ongi bideratzen lagunduko die. Hau guztia arnasketa, gorputz jarrera eta jolasen bitartez.

Adina: HH2,3

OFIZIO-AFIZIO **65€ .**

Haurrek gizartean dauden lanbideekin esperimenta dezaten proposatu nahi dugu ekintza honekin: Arkeologia, arkitektura, sukaldaritza, argazkigintza, medikuntza, jostungintza, musika... Lanbide sorta honetatik batzuk aukeratuko edota berriak gehituko ditugu. Lanbide hauekin erlazionatutako hainbat proiektu proposatuko ditugu ofizioa hobeto ezagutu dezaten. Ahal den neurrian ofizioa afizio bihurtzea da gure nahia. Horretarako proiektu eta elkarrizketa desberdinak egingo dira:

Arkeologiaren bitartez historiaurreko bizimodua ezagutu ahalikoa dute. Garai horretako instrumentuak, margoketak... ikusi eta egingo ditugu. Eskabazio xumeren bat egingo dugu, lurretik hainbat pieza ateraz. Fosilak sortu, zeramika landu.....

Arkitektura: eraikuntzak eta maketak eginen ditugu, munduan eraikitzeko dauden modu desberdinei erreparosoa eginen diegu...

Sukaldaritzaren inguruan: elikagaien piramidea ezagutu, errezeta desberdinak egin, sukaldariren bati elkarrizketa egin lanbide hau hobeto ezagutu dezaten...

Bestelako lanbide proposamenak: Argazkigintza, Medikuntza, Jostugintza, Musika...

Adina: LH 3, 4, 5, 6

XAKE **65€ .**

Ekintza honen helburua nagusia xakean jolasten ikastea izango da. XAKE taula, figurak eta mugimenduak ikasteaz gain, kirol honekiko zaletasuna sortzea izango da gure asmoa.

Adina: LH 1,2,3, 4, 5, 6

INGELESA, FRANTSESA edo ALEMANA **100€ .**

Jolasen bidez hizkuntzak ikasiko dituzte

Adina: LH 1,2,3,4,5,6